

- 2010eko urtekaria: hilez hil gertakizun aipagarrienak
- **Kultura:** herriko egitegia salgai dago dendetan

soraluzeko  
hamabostekaria **234.** alea  
2010eko abenduaren 24an

# @ pil-pilean



**Iñigo "Plaentxi" zena  
omenduko dute lagunek**



Oztopo guztien gainera... euskaldunon herriak bere bidea egingo du!

**Euskal Herri berria dugu elkarrekin irabazteko!**



Soraluzeko Ezker Abertzalea

Gabon hauztan...

oparitu



Zoriontasuna



Soraluzeko Udala

**LOREA DE CASTRO****AINARA OSORO**

## GABONEN BUELTAN

**K**aixo Ainara! Zer berri? Barrero be, hotza eta edurrakin batera, badatzo Gabonak. Herrixak eta batez be hiriburuak “makilatuta” topatu dittut azkenaldixan, goittik behera adornoz eta argiz jantzitta. Zelako dirutza lagatzen dogun urtero halakue-tan! Bueno, kaliak argizatzen ta egun hauetako bazkari, afari eta oparixetan. Batzuek diñue konsumismuak bultza-tzen gaittuala hortara; beste batzuk aldiz, urtian behin dala eta aprobetxatu egin bihar dala.

Gurian urte batzuk badira ez dittu-gula Gabonak ospatzen. Horren ordez, edozein data aukeratu eta bazkari edar bat egitteko batu izan gara tripia gauza goxoz betetzeko eta konpainia onaz gozatzeko. Baina egun honetako onena, nere ustez, umien poza ikustia da, euren begixetan ikusten dan dizdira; hori ezin da erosi, ez daukalako prezixorik. Zela-ko ilusinuakin bizi dittuen egun honek! Olentzerori eskutitza idatzi eta bere bisitan zain egoten dira, ondo portatu bihar dirala ahaztu bare, badazpada be! Eta ikatz pixkat jausten bada be perfektu, normalian goxua izaten da eta.

Akordatzen naiz txikittan zela juaten ginan amama Edurnen etxera goizian goiz Olentzerok guretzat lagatako erregaluak jasotzera... ai ama, zelako nerbi-xuak! Eta gero sorpresa: baina zela zan posible beti guk nahi genduana ekartzia! Flipantia zan!! Urtiekin inozentzia hori emenda-tzen jua da eta ilusinuak nostalgixiari laga dotsa bidia. Etxian norbaitx falta dogunontzat, Gabonak iada ez dira lehenguak.

Zuri, Ainara, Gabon zoriotsuak opa dotsudaz. Aprobetxatu opor egunak eta ia 2011n gure desiuak betetzen diran, umiak ginanian moduan.

“

**“Gabonetan  
ilusinuak  
nostalgixari  
laga dotsa bidia”**

Lorea de Castro

**“Egun honek  
bizitza aurrera  
doian bukle bat  
baino ez dala  
gogoratzen  
doskue”**

Ainara Osoro

”

**K**aixo Lorea! Ba bai, konturatu orduko urtia bukatzen daukagu. Heldu da berriz eteko sutondora bueltatzeko garaixa, familixiakin egon, lagunak ikusi, tripia lehertu arte bete... Beti gustatu izan jatan gauza bat herrixa egun haue-tanjendez beteta ikustia da, udako opo-rren antzera. Gainera ematen dau, egun batzuetan haserriak eta ezin ikusixak laga egitten dirala, urtia hasten danian “urte berri on!” esaten dozu ixa nori dan inporta barik. Gabonek badauke zeeze majikua bai...

Ederra litzake oindiok txikittako begixekin sentitu ahalko baneuke Gabon garaixa. Ezinezkua danez, barruan daukaten ilusiño guztixa erabiltzen saiatzen naiz onduan egun honetan dittutene konpanixia aprobetxatzen. Horretarako ez da bihar dirurik! Nahiz eta beti falta jakun norbait. Zeinek daki, askotan lagun berrixak izaten dittugu Gabon afarirako. Oroitzapen tristiak pasatzen laguntzen doskuenak. Izan be, Gabonek eta Gabonzaharrak, bizitzia aurrera doian bukle bat baino ez dala gogoratzen doskue: maiz antze-rako, baina inoiz ez berdin. Azken finian, jaiegun honek San Juan egunakin zerikusixa dauke. Ziklo zaharra itxi, gauza txarrak atzian laga eta sasoi berrixa itxaropenez eta indarraz hasteko errituala. Kultura bakoitzak bere erara antolatatu izan dau pasarte hau, hortaz,

bakoitza nahi daben (edo ahal daben) modura diberti dadila jai hauetan!

Zuek guztioi, edozein dala be zuen sinesmena edo urte bukaeria ospatzeko modua, zoriotsu izan zaitezte egun honetan eta beti. Eta datorren urtia momentu onez eta gure ametsak betetzeko aukerez beteta etorri dein!

### Goguan hartzeko

**“Zorionaren bila joan behar da; zoritxarra deitu barik etortzen da eta.”**  
Gotzon Garate, euskal atsotitza





## GUTUNAK

### Kultur azpiegituren inguruan

Orain dela gutxi gure taldeak herriko kultur etxearen inguruko artikulua idatziz. Zoritxarrez, jakin badakigu, legealdi honetan ez dela eraikiko. Pil-pilean dagoen gaia herriko kultur eragileen eskariz, zenbait lokal iharduera hauetara bideratzea izango litzateke. Gure gogoeta egitea nahi dugu lokal hauen inguruan. Merkatu plazako lokalari dagokionez lanak hasiak daude, baina oraingoz, teiltuaren zaharberritzea egingo da bakarrik. Estazioko babes ofizialeko etxe azpian udalak daukan lokalari dagokionean ere, oraingoz ezer ez. Lehenengo lokalari dagokionean 29.000 eurotako partida zegoen, bigarrena egiteko aldiz 30.000 eurotako udal aurrekontuetan. Abenduaren lehen buruturiko plenoan kreditu aldaketa bat onartu zen. Hain zu-

zen ere, aurreko bi partidak bertan behera gelditzen dira, gastu arruntak izan duen gehikuntzari aurre egiteko. Ondorioz epe motzera begira lokal hauek ezingo dira egokitu. Azkenik gaztelekuari dagokionean, legealdi honetan gila zubian dagoen lokalak alokatu du udalak, hileroko gastuarekin.

Denok dakigu neurri hau behin behinekoa dela. Herriko kultur eragileek ere proposatu diote udalari gaztelekua kiroldegira eramatea. Behin betiko neurririk hartzeko asmorik ba al dauka udalak? Legealdia bukatzean eta lau urte igaro ondoren ikus dezakegu ez dela gauza zehatzik egin gai hauen inguruan. Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak. Informazio gehiago [www.soraluzepnv.com](http://www.soraluzepnv.com).

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea



Urtarrilaren 14an argitaratuko da hurrengo alea. Erredakzioaren partetik, **urte berri on** irakurle guztiei!

# Pil-Pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com) **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saibiluordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Karmele Ortueta  
**Tira, tira, Tita**

O inguan baten bat asaldatuko jata, konturatzen danean zein Titaz ari naizen eta hala bada zorionak ematen dizkiot. Esaten dutenez euskaldunak ez omen gara atzera gelditzen, txutxumutxu, txepel kontu jale amorratuak eginak garelako. Itxuria hori kontuan hartuta Bilboko alkate jaunari ze bururatuko eta Tita hori, Tita Cerbera, zer? Zer-bera bera ekintzaile bikain bezela izendatu dau. Nahikua dogu! Bilbotar batzuren moduan diruz gainezka dagon horrek a zer nolako merituak egingo zittuan. Ekin-tzailiak bere ordezkaria bat emakume joko nittuzke, Bilbo aldiari bertan esaterako Gallartako meatzeixetan jardun zebenen itzalean lan egindakuak eta... Arratiako baserrixetan eguzkittik eguzkira eten gabe jarduten dutenak eta ez presixo zugaitz baten itzalpean, horrek bai ekintzailiak, bainan Bilbo haundian be zoritxarrez diruak mobitzen ditte bazterrak eta Azkuna berak be hori akordautu balitteke izendapen hori egittia, behar bada Guggenheimarako kuadro ederren bat ekarriko zion esker onez.

## Iñigo Placencia "Plaentxi" zenaren lagun taldea

Zoritxarren aurrean elkartasuna eta babesa ematea oso aberasgarria da gizarte edo herri baten-tzat. Abuztuan ezustean harrapatu zituen lagunaren bat-bateko heriotzak eta harrezkero Iñigori agur duina emateko ahalegine-tan buru-belarri dabilta, hainbat ekimen antolatuz.

### Errealia ikusteko sarrerak zozketatu dozuez. Zer dala eta?

Iñigon omenaldixa gertatzen hasi ginanian, Errealakin harremanetan jarri ginan. Iñigo ezagutzen zebenez, bertan jokaturakua zalako, oso prest agertu ziran guri laguntzeko. Irailetik denboraldixa amaittu bittartian Errealia etxian ikusteko bina sarrera emon zoskuezen, eta guk errifak egin eta sarrerak zozketatu egin dittugu, elkartasun keinua herri-za zabaltze aldera. Jasotako dirua, familixakuentzat izango da.

### Ez da hori antolatu dozuen ekimen bakarra.

Urtarrilian, Errealeko eta Athleticen beteranuen arteko futbol partida ikusteko aukeria izango dogu Ezoziko zelaixan. Bittartian, bertan zozketatuko dittugun 3 otarren errifak salduko dittugu, herritarrak omenaldixan parte izan daittian. Otarreran sari potoluak izango dira, ordenagailu bat, bizikleta bat, telebista... Dan-dana herriko den-darixak emondakua.

### Senidiak harro egongo dira.

Senidiak herritarren berotasuna jaso deixen nahi dogu. Momentu txarren aurrian bakarrik ez darella erakutsi eta gure lagunari bizitzan zihar emondako dana

(( (ENTZUTEKUAK) ))



Iñigoren omenaldia prestatzen diharduten lagunetako batzuk

bueltan emon nahi dotsagu. Bere heriotzak ezustian harrapatu gintuan eta Iñigo bere lagunaren laguna zanez, umila eta bihotz haundiko pertsonia, guretzat agur esateko modu bat da hau danau. Ezinbestian erakutsi biharreko esker ona.

### Berak zer pentsatuko leukela uste dozuez?

Herri osuak izan daben erantzunakin harro egongo zan seguru-seguru. Arrantzalia zan, ehiztarixa, futbolzalia eta bere ortu txikixan ordu asko pasautakua. Horri eskerrak lagun askozekazen eta igartzenda egun honetan herritarrak gure-ko izan daben jarrera paregabian.

### Herritarrak badauke lagun-tzeko modurik?

Bakoitzak bere modura, danak lagundu doskue. Herritarreri urtarrilian ospatuko dan futbol partida emotibora juateko gonbita luzatzia geratzen da, eta bide batez merkatarixak egindako ekarpenak eskertu, danongaittik ez bazan, hau danau egittia ezinezkua izango zalako.

*"Iñigo bere lagunaren laguna zan, umila eta bihotz haundiko pertsonia"*

**TXURRUKA**  
**JATETXEA**

www.txurruka.com  
943 75 15 81

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



# Herriaren erdialdea urtarrilean oinezkoentzat izango da

Urtarriletik aurrera Udalak ibilgailuei herriaren erdialdean ibiltzeko ordutegi murriztua ezarriko die. Merkatari eta lokalen jabeekin harremanetan ipini da, erdialdera sartu behar badute, piboteak kontrolatzeko urrutiko aginteak edo sarrera mandoak banatzeko. Erdialdeko merkatari eta lokalen jabeen artean, 60 eskaera egin dituzte dagoeneko. Arizaga alkateak adierazi du, sarrera

mandoak programatu, aktibatu eta probatutakoan abiatuko dutela herriaren peatonalizazioa.

## 13:00etatik 7:00etara erdialdea autoentzat itxita

Ordutegiari dagokionez, eguerdiko 13:00ean erdialdea itxita egongo da ibilgailuentzat, hurrengo eguneko goizeko 7:00ak arte. Jai egunetan ostera, ezingo da ibilgailurik ibili. Astegunetan ondorengo puntuetan itxiko dituzte kaleak: Santa Ana kaleko "Ufala" taberna parean, Erregetxearen ostean, Gabolats kale hasieran eta "Belarrak" denda parean. Zubi Nagusian aparkatzeko aukera egongo da baina asteburuan, eguerdiko 13:00ean Zubi Nagusia itxi egingo da. Bestalde datozen bi barixakuetan, hilaren 24an eta 31n, erdialdea oinezkoentzat izango da eguerdiko 13:00etatik aurrera. Zubi Nagusia eta "Ufala" tabernatik aurrera moztuko da bidea.

## Lau soraluzetarren aurkako epaiketa ez da egin

Abenduaren 14an zen egitekoa Eibarren lau soraluzetarren aurkako epaiketa iaz Gaztañerre bezperan gaztetxe kanpoko horma margotzea leporatuta. Gazteak ez ziren epaiketara agertu, ezta Udala ere. Kasua artxibatzeko zain daude orain herriko lau gazteak.

## Emakumeentzako egitarauak aurrera darrai

Abenduaren 20an "Anbotorako bidean, Mariren gerrikoa" izeneko tailerra egin zuten herriko 18 emakumek, Idoia Alberdi eta May Serranoren eskutik. Urtarrilean ekimen gehiago izango dira:

### Autodefentsa ikastaroa

Urtarrilak 15, zapatua, egun osoan zehar Maitena Monrroyren eskutik.

Izena emateko epea: urtarrilak 12.

Prezioa: 10 euro.

### NAGORE filma

NAGORE (Nagore Laffage)

Elena Tabernaren film dokumentala eta eztabaida. Urtarrilak 26, eguaztena, 19etan Zinean.

Peatonalizazioarekin Kalebarren ere itxita egongo da.



## Elkartzenek kontzejupea bete zuten

Joan zen zapatuan Elkartzenek egindako jantoki herrikoiak kontzejupea jendez bete zuten. Herritarrek mahaia bete zituzten eta herriko dendariak musutruk emandako jakiak bazkaldu. Pobreziaren muga 1069 eurotan dagoela jakinarazi zuen Elkartzenek eta muga horren azpitik bizi direnentzat antolatutako zuten aipatutako bazkaria.



## KZgunea urtarrilean arratsalde zabalduko da

Soraluzeko KZgunea urtarrilaren 13an, 20an eta 27an zabalduko da, 16:00etatik 20:00ra bitartean. Interneten dohai-nik nabigatzeko aukera dute bertaraten direnek, eta Aitor Madrideren eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartzeko ere bai. Informazio gehiago 943 75 30 45 edo 943 25 23 51 telefonoetan. edo [tutor.soraluze@kzgunea.net](mailto:tutor.soraluze@kzgunea.net) helbidera idatzita.



## SAN ANDRES

### ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



## MENDIZABAL

### okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

## Lurdes Txurrukak jasan duen bakartzea salatu dute

### Ipini dute Gabonetako jaiotza Atxolinen

Ohiturari eutsiz, herritar talde batek Atxolinen jaiotza ipini du. Tipi-tapa, sorbalda gainean eraman zuten txabolatxoak Atxolineraino. Errege egun ingurura arte egongo da mendi gainean jaiotza.



### Giza Katea eskubide zibil eta politikoen alde

90 sorluzetarrek parte hartu zuten joan zen domekan Sorluzetako ezker abertzaleak eskubide zibil eta politikoen alde antolatutako giza katean. Aipatutako ekimena, azaroaren 27an ezker abertzaleak egindako aldarriaren harira dator, "proiektu politiko eta organizatiboaren aurkezpena eta legeztapenaren aldeko" aldarria hain zuzen ere.

### Gabonak Mesedeetako Amaren egoitzan

Erresidentziako aittitta eta amamentzat egitarau zabala antolatu dute Gabon egunei begira. Gabon egunean, arratsaldean, herriko abesbatzak kantu saioa eskainiko du bertan eta jarraian Olentzerok opariak banatuko dizkie. Abenduaren 28an ostera, inuxente eguna ospatu eta bertakoek kokoak eta mazapanak egiteko aukera izango dute. Hilaren 30ean abenduko urtebetetzeak ospatuko dituzte eta Duo Plaentxik kontzertua eskainiko du jarraian. Urteko azken eguna bingo bereziarekin ospatuko dute eta urtarrilaren 3an Jesusen jaiotzari buruzko argazkiak eta diapositibak ikusiko dituzte. Egitaraua ixte aldera, urtarrilaren 5ean Erregeen bisita jasoko dute.

Abenduaren 17an Lurdesen senideek eta Sorluzetako Amnistiaren Aldeko Mugimendua prentsurrekoak egin zuten sorluzetarra azken sei hilabeteetan Huelvako espetxean bakartuta egon dela salatzeko: "Espetxe horretan dagoen preso politiko bakarra izan da eta duela urtebetetik arazoak ditu 'vis a vis'eko bisitekin miaketak direla eta". Dispersioaren eraginez, Lurdes etxetik 1.200 kilometrorra dagoela ere salatu dute, eta senide eta lagunek Lurdes ikusteko, asteburu bakarrean 2.400 kilometro egin behar dituztela azaldu. Doktrina berezi baten ondorioz, Lurdesek 2024. urtera arte kartzelan egon beharko duela azaldu zuen AAMk. Aipatutako prentsurrekoan bere askatasuna eskatzeaz gain, urtarrilaren 8an euskal preso politikoen alde Bilbon egingo den manifestazio nazionalerako deia luzatu zien herritarrei eta "Gu ere joango gara" lemadun kartelarekin argazkia atera zuten.

### Gabonetako "Elkartasun egitaraua"

AAMk Gabonetarako prestatu duen egitaraua aurkeztu zuen. Gabon egunean 19:30ean Olentzerorekin manifestazioa egingo dute eta gauean "Hator hator gaba" ospatuko dute Arrano tabernan. Hilaren 26an Martutenera martxa antolatu dute eta bertara joateko asmoa dutenek, Erregetxean agertu beharko dute goizeko 10:00etan. Urte zahar egunean berriro, presoan aldeko elkarretaratzeko berezia egingo dute, arratsaldeko 20:00etan Plaza Barrixan eta goizaldeko 01:00ean berriz brindisa egingo dute bertan. Urtarrilaren 8ko manifestaziora joan nahi dutenek, Arrano, Gaztetxe edo Gaztelupe tabernetan eman beharko dute izena.



Bilboko manifestaziora joateko deialdia.



Barrixakuan egindako prentsurrekoak.



## ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua



## GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34





# URTEKARIA 2010



## 01 Urtarrila

**Trafikoaren norantza aldatzea:** Urte hasierako Osoko Bilkuran Udal Gobernu Taldeak trafikoaren noranzkoa aldatzeko mozioa onartu zuen. Oposizioaren desadostasunaren aurrean, herri erdia oinezkoentzako bihurtzeko beste neurri bat zela esan zuen alkateak.



## 02 Otsaila

**Euskara ikasleak Mesedeetako Amaren egoitzan:** Bertako zuzendaritzak eta udalak egoitzak euskarazko zerbitzua bermatzeko euskara plana martxan ipini zuten. Euskara eskolez gain bertako dokumentuak euskaratzea izan zen lehen pausoa.



## 05 Maiatza

**Kooperatibaren mendeurrena:** "Sociedad Cooperativa Benéfica" kontsumo kooperatiba sortu zenetik mendea bete zen maiatzean eta ederki ospatu zuten urteurrena. Elkartek 500 bazkide inguru ditu egun.



## 06 Ekaina

**Allegrok 50 urte bete zituen:** 1960an 51 bazkiderekin sortu zuten Elkarteak bakoitzak 1000 pezeta ipinita. Egungo bazkideen artean emakumeak ere badaude. Ekainean, uztaileaneta abenduan egin zituzten ospakizunak.



## 09 Iraila

**Maisuen etxeak eraberritzeko 202.196 euro:** Etxebizitza ereduen gaineko eztabaida piztu zuen eraikinak eta azkenik etxebizitza sozialera bideratuko ditu udalak bertako sei etxebizitzak.



## 10 Urria

**Futbol zelai berria:** Urteetako eskaerari erantzunez, berdegune berria inauguratu egin zuten. Herriko futbolarietaz eta herritarrez bete zen zelaia. Aldagela berriak, argiztapena eta belar artifiziala du orain zelaia.





**03 Martxo**  
**Aurrekontuak onartu egin ziren:** Bi urtez 2007ko aurrekontuak molidatzen ibili eta gero, zinegotziek urtean urteko aurrekontuekin egin ahal izan zituzten 2010eko diru aurreikuspenak. Iaz baino 1.782.262 euro gutxiago egon da aurten.



**04 Apirila**  
**Laskurain Eskuz Binakako Txapelketako finalean:** Pilotari soraluzetarra Sebastian Gonzalezekin batera iritsi zen Txapelketako finalera. Bi bider sailkatu da eta tamalez bietan galdu du. Hirugarrenean etorriko ahal da txapela!



**07 Uztaila**  
**Udalbiltzak herritarren babesa jaso zuen:** Auzipetutako 22 lagunei babesa eman zion Soraluzeko Udalbiltzaren aldeko babes taldeak argazki baten bitartez. Osoko Bilkuran ere babes mozio bat aurkeztu zuten "Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari" plataformaren izenean.



**08 Abuztua**  
**Andramari jaixak:** Abuztuko ospakizunen artean Andramariak ospatu zituzten herrian. San Roke eguneko tortila txapelketa izan zen ekitaldietako bat.



**11 Azaroa**  
**Bost emakumek tratu txarrak salatu dituzte:** Azaroaren 25aren harira jakin genuen datu larria. Baita aurten, beste zortzi emakumek asistentzia psikologikoa jaso dutela. Indarkeria salatzeke elkarretaratzea egin zen herrian.



**12 Abendua**  
**Jantoki herrikoia antolatu zuen Elkartzenek:** Gabonetako kontsumismoari eta pobrezia aurre egiteko, jantoki herrikoia eta truke azoka antolatu zituen.



# ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Pobreziaren muga 1069 eurotan ezarri du Kooperazio eta Hazkunde Ekonomikorako Erakundeak (KHEE). **Elkartzen** Euskal Herriko eskubide sozialen aldeko mugimenduak ohartarazi du Euskal Herrian milioi bat lagun bizi direla pobrezian. Herriko taldeak hainbat ekimen antolatu ditu gabonetarako.

## 1069 euro kobratzen dittuana pobria dala esango zenduke? Holako sasoietan kontsumua jaitsi beharko genduke?

**M<sup>a</sup> ASUN ARGARATE**  
Pentsioduna



**MONTI CARRETERO**  
Amatasun bajarekin



**RUBEN FERNANDEZ**  
Siderurgixa teknikua



**FRANCISCO OLIVERI**  
Soldadoria



**E**z jata pobria pentsatzen. Ni alargunduta nago eta gutxiago kobratzen dot. Gabonetan baina, senidien artian bote bat ipintzen dogu bertatik erosketak egitako. Gutxiago gastatu beharko genduke eta krisixa ez dala igerri emoten dau.

**P**obresamarra da nere ustet, bai. Guk gabonetan igual oparixetan edo igerriko dogu, gainera oin txiki-xakin gastu gehixago daukagu. Baina nik uste hobe dala urtian zihar kontsumua jaistia; guk behintzat oin ez dogu jaitsiko.

**H**ori diru oso gutxi da, pobria pentsatzen jata bai. Kontsumuari dagokionez, askotan eroste hutsagatik erosten dogu eta gauza kulturala da nere ustet. Kapritxuak erregalatu baino hobe da benetan bihar diranak oparitzia.

**O**so diru gutxi da. Zezo gehixago irabazten dot eta ezin naiz dana ordaintzera heldu. Gabonetan? Gerrikua estutzera! Sasoi honetan beti nere herrira juaten nintzan. Aurten ostera, etxian geratuko beharko naiz.

Diagnostika Biologikoa  
Naturapatia  
Homeopatia  
Fitoterapia Ortomolekularra  
Kromoterapia  
Bach-en loreak...

Jardorianz, 3 Behea  
20720 Azkolitia.

Boulevard, 9 Prinsipal A  
20003 Donostia  
Tlf: 615 779 920  
www.medicinaalternativa-ioko.net

**Ikur Olabarria Corchero**

**ioko**  
Medikuntza Alternatibo Zentrua  
Centro de Medicina Alternativa

**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

**Errekalde 21**  
**20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**KM Desing**  
Diseinua eta Formena

Poligono Amillaga, n<sup>o</sup> 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



### Desprezio taldea Danbakako finalean

Desprezio talde soraluzetarra Danbaka Musika Lehiaketako finalera heldu da, Xarma eta Lord Witch taldeekin batera. "Estiloarekiko fidelotasunak eta jarrerak eroan ditu taldeak finale-ra" aipatu dute epaimahaikideek. Desprezio taldeak komunikatzeko gaitasun handia duela ere azaldu dute eta taldearen freskototasunak finalean egoteko asko lagundu diela. Gainera, punkaren oinarrietako bat "Do it yourself" (egizu zuk zeuk) mugimendua errebundikatzeak pisu handia izan duela ere gehitu dute. Finala urtarrilaren 14an izango da, 22:30ean Elgetako Espaloia Kafe Antzokian.

### Gaztetxeko Hamabostaldia Abenduaren 24tik urtarrilaren 14ra

**25ean:** "Monty Python" bideo emanaldia 19:00etan.

**26an:** Ipuin Kontalaria (5 urtetik gorakoentzat) 17:00etan.

**27an:** Garagargoa egiteko ikastaroa 11:00etan.

**29an:** Basalگو-Soraluze mendimartxa. Irteera: 8:15ean.

**1ean:** Beldur umorezko filma 19:00etan.

**3an:** "Fatsinpot" bideo-emanaldia 19:00etan.

**5ean:** Malabare jolasak 17:00etatik aurrera.

**7an:** Bertso merienda 18:30ean eta Norte Apache RAP saioa 22:30etik aurrera.

**8an:** Kontzertuak: Hard Flip eta Citizen Cane 22:30ean.

**13-14an:** Dantza afrikar ikastaroa 17:00etan.

## Mikel Zengotita elgoibartarrak irabazi du Kontrargiren Argazki Rallya

18 argazkilarik hartu zuten parte azaroaren 20an Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatutako XXII Argazki Rallyan. Denera sei gai erretratatu behar izan zituzten: "umorea", "igogailua", "kartoia", "ura", "bidegorria" eta azkenik, gai librea. Joan den abenduaren 10ean batu zen epaimahaia eta 100 euroko saria Mikel Zengotita elgoibartarrari eman zion. Bigarren Carlos de Cos (80 €) eta hirugarren Mikel Va-

lero (60 €) geratu dira. Herriko onena Fernando Oregi izan da eta gazte saria Silvia Loscosek jaso du.



Iturria: Mikel Valero

## Datorren astean salgai jarriko da 2011. urteko egutegia

Pil-pilean Euskara Elkarteak eta Kontrargi Argazki Kolektiboak 2011. urteko egutegia abenduaren 27tik aurrera jarriko dute salgai herriko dendetan, bost eurotan. Aurten Eli Lakuesta argazkilaria hamalau argazkik osatzen dute egutegia. Sayoa kafetegiko langileak, Euskaldu-

na lantegia, lagun taldeak, San Martzialgo basiliza, Mendiko Finalista Eguna, txirrindularitza lasterketa, txistulariak eta 65eko Danborradako argazkiak azaltzen dira, besteak beste. Pil-pilean Euskara Elkarteak bazkideek ale bana etxean jasoko dute, dohainik.



### Musika Eskolakoak Oskorriekin kantuan

Aurreko barixakuan Musika Eskolako abesbatzako eta hizkuntza musikaleko 5. mailako ikasleek Oskorri musika taldeak Iruñean eskainitako emanaldian parte hartzeko aukera izan zuten. Kontzertua Anaitasuna antzokian izan zen eta guztira 33 soraluzetarrek hartu zuten parte.



Iturria: Itziar Burunza



**MAPFRE**

**SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.**

**Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal**

Gabalatz, 5-B Behea  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarzo@infonegocio.com

Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

## Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

- Empapelatuak
- Estukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

## Ezoziko Futbol zelaia alokatzeko aukera

Inauguratu berri duten Ezoziko futbol zelaia edozeinek alokatu ahal izango du maiatzetik aurrera. Zelaia osorik edo erdia hartu ahal izango da eta lehengo aldagelak ere erabili ahal izango dira (eraberritu berri daudenak). Erabaki hau Udaleko Kirol Batzordeak hartu du, Udal

instalazioak izanda, zelaiaren erabilpena herritarrei zabaldu eta bide batez finantziarioa lortzeko. Eskaera egiteko kiroldegira jo beharko da eta kuota bat ordaindu. Futbol zelai erdia ordubetez alokatzeko **42 euro** ordaindu beharko dira, zelai osoa alokatzeko berriz, **56 euro**.

## Kiroldegiak aquagym eta sevilana klaseak eskainiko ditu

Arane kiroldegiak urtarrilerako eskaintza berriak izan-

go ditu. Sevillanak dantzaten ikasteko ikastaroa eskainiko dute Montse irakaslearen eskutik. Taldea osatzeko baina, gutxieneko kopuru batek izena eman beharko du. Aquagym ikastaro berria ere martxan jarriko da, astelehen eta eguaztenetan 14:45ean.

Ikastaro berriei buruzko informazio gehiago eta futbol zelaia alokatzeari buruzko zehaztasunak kiroldegian galdetu beharko dira edo 943 75 24 66 telefonora deituta (Xabier).



Aquagym ikastaroa

## San Silvestre krosa urteko azken egunean

Zenbait herritarrek eta Atxolin Guraso Elkarteak, 2010. urteari kirola eginez eta lagun artean agur esateko, abenduaren 31an San Silvestre kros herrikoia antolatu dute. Lasterketan parte hartzen dutenek ez dute dortsalik izango ezta saririk ere. 4 kilometroko ibilbidearen irteera udale-

txe paretik izango da 16:30ean. Herriko haur, gazte eta helduak gonbidatuta daude bertan parte hartzera, baina 8 urtetik beherakoek gurasoen konpainiaz egin beharko dute lasterketa. Antolatzailerak krosa girotzeko, musika instrumentuak eramateko gonbita luzatu dute.

### EMAITZAK

#### PELOTA

Titin III – Laskurain	19
Olaizola II – Apraiz	22
Titin III – Laskurain	21
Aritz Lasa – Zubieta	22
Atxotegi	13
Ojuel	22
Atxotegi – Bengoetxea	16
Erauskin – Galarza	22

#### FUTBOLA

Bergara "B" – Sora (Erreg. B.)	6-0
Sora (Erreg.) – Aretxabaleta "B"	2-1
Zestoa – Sora (Jub.)	5-2
Sora (Kad.) – Elgoibar	0-10
Sora (Erreg. B.) – Eibartarrak "B"	3-2
Urki – Sora (Erreg.)	1-1
Sora (Jub.) – Idiazabal	1-7
Eibartarrak "B" – Sora (Kad.)	3-0

### AGENDA

#### FUTBOLA

##### Igoera fasea eta kopa urtarriletik aurrera

Urtarriletik aurrera A Erregionalak igoera fasea jokatu du eta gainontzeko taldeak kopa jokatzen hasiko dira.

#### PING-PONG

##### Ping-pong festa urtarrilaren 4an

Herriko txikienek ping-pongean dohaiarik jolasteko aukera izango dute urtarrilaren 4an, goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00ak arte, kiroldegian.

#### MENDIA

Soraluzeko Mendi Taldeak 2011. urteko federatu lizentziak berritzen dihardu. Datorren urtean federatu izaten jarraitu nahi duten bazkideak edo bazkide egin eta federatu nahi dutenak, Mendi Taldeko lokaletik (Pil-pileaneko egoitzatik) pasatu beharko dira eguinetan, 19:30etik 20:30era bitartean.

Harremanetarako: soraluzekomendialdea@gmail.com edo 943 75 13 04.

**Elizpe**  
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:  
- Ortodontzia ikustezina  
- Inplanteak

DOHAINGO BERRIKUSKETAK  
FINANTZIARETA ZURE HELBERRA  
KOPROFESORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa) | Elaburu 3. behe, Soraluze • Tel. 943 75 25 67

**TXOKO**  
**KAFETEGIA**

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behe, Soraluze. Tel. 943 75 17 89



# ZORION AGURRAK



**Kattalin Altuna**  
Abenduan 27xan 3 urte!  
Hiru muxu potolooo...  
etxekuen partez!



**Amaia Hernandez**  
Urtarrilan 3an 6 urte!  
Zorionak Sorgin txiki!!  
Muxu pila bat  
etxekuen partez!



**Malen Ugalde Alberdi**  
Abenduan 18xan, 2 urte!  
Geroz eta sorginagua, geroz  
eta ederragua... Zorionak  
maittia etxekuen partez!



**Aitor eta Einer Gil**  
Abenduan 15ian eta 18xan  
Urriak betetzen ditzuzelako...  
Muxu potolo bat eta zorion pila  
etxekuen partez!



**Garazi Jule Catalan**  
Abenduan 29xan 11 urte!  
Zorionak eta muxu haundi bat  
familixakuen partez!



**Aimar Perez Unamuno**  
Abenduan 20xan 6 urte!  
Zorionak etxeko guztixon  
partez, eta bereziki Mirarin  
partez!



**Nora Ouargui Aldazabal**  
Abenduan 22xan urtebete  
Zorionak maittia!  
Aita, ama eta Ibonen partez.



**Ilargi Alberdi eta Iosune Casares**  
Abenduan 17xan eta 24an  
4 eta 37 urte betetzen ditzuzelako,  
Muxu haundi bat etxeko bi altxorrenzat!



**Hodei Valdivieso Argarate**  
Urtarrilan 9xan 7 urte!  
Zorionak maite zaitugun  
guztixon partez!



**Andrea Dominguez**  
Abenduan 27xan 5 urte!  
Ondo pasatu zure urtebetetzian,  
etxeko guztixon partez!



**Jone Urresti Laskurain**  
Abenduan 9xan jaixua.  
Ongi etorri txikitxo eta muxu  
asko ama, aita eta etxekuen  
partez!



**Jone Cortes Sanz**  
Urtarrilan 9xan 4 urte!  
Zorionak familixa guztixon  
partez, eta muxu haundi bat  
politta!!



**Elia Ramos Alonso**  
Abenduan urriak betetzen  
ditzuzelako, muxu erraldoi  
bat Maribin partez!

## jaiotakoak

IÑIGO ASTIGARRAGA HERNANDEZ  
JONE URRESTI LASKURAIN



## hildakoak

MARIA CONSUELO ARIZAGA ZIRIZAR  
LEONCIO GABILONDO OREGI  
SABINO IÑURRIETA GOIKOETXEA  
ROKE TREVIÑO MAIZTEGI



## LEHIAKETA

► Zein ageri  
da argazki  
honetan?

► **Saria:**  
Danbakako finala  
ikusteko lau sarrera.



## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea: Garazi Jule Catalan**

► **Nerea Bollar**  
ludotekako arduraduna da  
aurreko aleko argazkixan agertzen  
dan soraluzetarra.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia eta etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpolean.com**

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Maitte Narbaiza

## 1983KO EDURTIAK HERRIXA ETA INGURUAK ZURITU ZITTUAN

Aurten 27 urte beteko dira Euskal Herrixan astebetez jarraixan edurra egin eta gure inguruak zuri-zuri geratu zirala. Mendiko bidia edurtuta zerela aprobetxatuta, askok herrixan geratu eta inguruko mendixetan eskiatu zebe orduan. Argazkiko neska-mutikuak Txurruka auzuan hasi eta aldapan behera Zeletaraino eskiatzen jeistera animatu ziran. Kontxako hondartzan be eskiatzailiak ibili ziran, tartian, herritar batzuk. Erretratu hau Zeleta auzuan jasotakua da, Txurrukatik jeitsieria egin ostian etaratakua.

### Argazkixan:

Ainhoa Artolazabal (ezkerrian)

Roman Elorza (eskuman)



**ELI ETOR LAKUESTA GOROSABEL**

10. URTEURRENA

*Maitasuna, laguntasuna, adiskidetasuna eta kideetasuna.*

*Borroka eta batasuna,  
Euskal Herria eta bere Askatasuna.*

*Bide zuzena erakutsi zoskun  
eta holan gogoratzen zaittugu,  
miresten zaittugu*

*Ze zaila dan zu gabe bizitzia,  
ze erraza dan zu gogoratzia, sentitzia...*

*Hemen izango bazina...*

*Maitte zaittugu Eli maittia, Aitta, Aittitta.*

*Etxekuak*



# IV. Danbaka Musika Lehiaketa



## Xarma, Lord Witch eta Desprezio taldeak izango ditugu Danbakako finalean

Finalak garbi utziko du Danbakan rockak, metalak eta punkak balio duela. Estiloari fideltasunak eta jarrerak eroan ditu taldeak finalera. Oso talde diferenteak dira hirurak eta berriz ere izango da ezinezkoa konparazioak egitea. Bakoitzak berean, estiloan onenak balira bezala jardun beharko dute. Lord Witchekoek teknika zanpatzaile eta zuzeneko deuseztatzailea dute. Xarmakoek presentzia eta kantua onak, txapeldunen ikur izan ohi dena eta Despreziokoek dagoeneko erabat higatutako estiloa defendatzera etorrira ere, punkaren garrantzitsuena berreskuratu dute, jarrera.

Xarma, Lord Witch eta Desprezio taldeak finalean egoteko arrazoi hauek azaldu dituzte epaimahaiko kideek.

### Desprezio

Jarrera. Egiten duten horretan sinisten dute eta mezua heltzen da, komunikatzen dute. Nahiz eta teknikoki oso onak ez izan, egiten dutena egiten duten moduan egiteak handiagoak egiten ditu.

Freskotasuna. Horixe daukate eta kontzertu dibertigarriak egiten dituzte. Ditutzen baliabide gutxiekin moldatzen dira bestelakorik behar gabe. Nahi dutena egiten dute, gustatzen zaiena.

'Do it yourself'. Bada ordua XXI. mendean Do It Yourself edo 'egizu zuk zeuk' errebindikatzeko. Naturaltasun handia dute. Koherenteak dira. Punka oraindik bizirik egotea poztekoa da.

### Xarma

Jarrera soberan. Guztia kontra izan zuten, ehunka arazo tekniko, eta oztopo horiek guztiak erraztasunez eta soltuz gainditu zituzten, animu handiz eta emanaldia bertan behera utzi gabe, ezertan eragin gabe.

Dena. Gauzak ondo egiten dakite eta ondo pasatzen dute. Guztia ematen dute. Teknikoki oso ondo.

Mezua daukate. Kantu onak dituzte, garapen eta aldaketa nabariek. Asko transmititzen dute. Indarra daukate. Presentzia eszeniko indartsua. Benetan xarma daukate.

### Lord Witch

Sinetsiak. Erabat sinisten dute egiten dutena eta hala bizi dute. Horregatik, asko transmititzen dute, ikusle-entzuleari heltzen zaio egiten dutena.

Estiloa muturreraino. Euren estiloa, heavya, muturreraino defendatzen dute. Koherenteak dira. Birtuosoak dira, oso ondo jotzen dute.


Taldeak. Taldea dira, oso konpenetratuta daude. Taularatze oso zaindua, detaileak asko zainduta. Zuzenean asko irabazten dute eta ikuskizuna ematen dute, ikuskizuna dira.



# GABON

ZURE

## EROSKETAK GASTEIZEN



ANTOLATZAILEA:



BABESLEA:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala